

UDAL KIROL ZERBITZUKO ARAUDIA

A. Araudiaren sarrera orokorra.

1. Araudiaren xedea.
2. Araudia zedarrituko duten bestelako lege eta araudiak.
3. Eragin-esparrua.
4. Arau orokorrak.

B. Erabiltzaile motak.

1. Norbanakakoak: abonatuak, eguneko erabiltzaileak eta jardueretan parte hartzen dutenak.
2. Kirol entitateak.
3. Eskolak.
4. Bestelako entitateak.
5. Laguntzaileak.
6. Ikusleak.

C. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

1. Eskubideak.
2. Betebeharrak.

D. Udal instalazioen erabilera.

1. Udal kirol instalazio guztietarako erabilera arau orokorrak.
2. Udal pilotalekuetako erabilera arauak.
3. Labegaraietako kiroldegiko erabilera arauak.
4. Agorrosin Ekintza Guneko erabilera arauak.
 - a. Ur eremuko esparruak.
 - b. Fitness aretoa.
 - c. Ikusentzun- eta gainontzeko aretoak.
 - d. Kirol entitateentzako bulegoa.

E. Udal Kirol Zerbitzuak.

1. Abonuak.
2. Ikastaroak.
 - 2.1. Definizioak.
 - 2.2. Zozketa eta plaza hartzea.
3. Pista, frontoi eta kantxetako alokairu eta erretserbak.
 - 3.1. Erabiltzaile partikularrek egiten dituzten kirol instalazio erretserba prozedura arauak.
 - 3.2. Entitateek egiten dituzten kirol instalazio erreserbarako prozedura arauak.

A. ARAUDIAREN SARRERA OROKORRA.

1. ARAUDIAREN XEDEA.

Araudi honen xedea da udal kirol zerbitzuen erabiltzaile-mota, beraien eskubide eta betebeharrak, eta udal kirol-instalazioak nahiz udalak eskaintzen dituen kirol zerbitzuak erabiltzeko baldintzak arautzea.

2. ARAUDIAREN GAINETIK DAGOEN LEGEDIA.

Araudi honetan zalantza sor dezaketen kasuetan, maila gorenagoko araudi eta legeriarekin osatuko dira.

3. ERAGIN ESPARRUA.

Araudi hau udal kirol zerbitzuaren jarduna garatzen den instalazio eta zerbitzuetan aplikatuko da.

4. ARAU OROKORRAK.

4.1.ADINA. Araudi honetan adina kontuan hartu edo adin bat zehazten denean, erabiltzaileak urteak betetzen dituen hilaren lehen egunetik, adin hori duela joko da. Ikastaro eta jolas-igerilekua izango dira salbuespenak; horietan, urte horretan betetzen diren urteak hartuko dira kontuan.

4.2. ARAUDIA BETETZEA. Araudi hau beteko dela ziurtatuko du Udalak, instalazioetako arduradunen eta langileen bidez. Gainera, zerbitzuak bertan behera uzteko ahalmena izango du, honako kasu hauetan:

- Instalazioak kaltetzeko arriskua dagoenean.
- Erabiltzaileen osotasun fisikoa arriskuan dagoenean.
- Ingurumeneko eta instalazioetako baldintzak eskasak direnean.
- Interes kolektiboak edo aurretik hartutako konpromisoak daudenean.
- Hala egitea eskatzen duten beste arrazoi batzuk.

4.3. ARAUDIA BETEARAZTEA. Udalak, instalazioetako arduradunen eta langileen bidez, ahalmena dauka pertsoneri instalazioetan sartzea debekatzeko edo instalazioetatik kanporatzeko, baldin eta araudi honetako arauak behin eta berriro hausten badituzte.

4.4. ARAUDIA ONARTZEA. Erabiltzaileak instalazioetan edo/eta zerbitzuetan sartzeak araudi honetako arauak onartzea dakar.

4.5. ORDUTEGIAK ETA EGUTEGIAK. Udalak zehaztuko du zein egunetan eta zein ordutan ireki eta itxiko diren instalazioak. Orokorrean, ezin izango da kirol instalazioan sartu, ixteko 30 minutu falta direnean. Ixteko orduan, erabiltzaile guztiek instalazioetatik kanpo egon beharko dute.

4.6. ISTRIPUAK. Araudi honek araututako instalazioetan jarduera fisikoa egitean istripurik gertatzen bada, Udalak ez du horren erantzukizunik hartuko, ez bada istripuaren arrazoia Udalari egotz dakiokela.

4.7. LAPURRETAK ETA GALDUTAKO OBJEKTUAK.

- Arropa, dirua edo beste edonolako objekturik galdu edo lapurtuz gero, Udalak ez du erantzukizunik hartuko, inolaz ere. Objektuak edo jantziak galdu dituen pertsona izango da lapurretaren edo galeraren arduradun bakarra.
- Aldagelan ahantzi edo galdutako arropak bi astetan eskatzen ez badituzte, birziklatzera bidaliko dira.
- Objektu baliotsuak Udaltzaingora, galdutako gauzen bulegora, bidaliko dira.
- Objektuak eta jantziak eskatzen dituzten pertsonak sinatu egin beharko dute emandako jantzi eta objektuen erregistro-liburuan.

A. ERABILTZAILE MOTAK.

Kirol instalazioaren erabiltzailearen definizioa.

Erabiltzailea da udal kirol esparru batera edo hitzartutako kirol esparru batera sartu eta berori erabiltzen duen pertsona oro (aurrerantzean “kirol instalazioak” deituko zaizkie kirol esparru horiei guztiei).

1. NORBANAKAKOAK: KIROL ABONATUAK, EGUNEKO ERABILTZAILEAK ETA JARDUERETAN PARTE HARTZEN DUTENAK.

1.1. UDAL KIROL ABONATUA.

1.1.1. Abonatua da ordenantza fiskaletan zehaztutako tasa ordaintzen duena.

1.2. EGUN BATEKO ERABILTZAILEA.

1.2.1. Kuota egokia ordaindu ondoren, egun batez, abonatuaren prestazio berdinar erabili ahal izango dituen herritarra da.

1.2.2. Horrek ordenantza fiskalean zehaztutako tasa egokia ordaindu eta inprimitutako txartela emango zaio, zerbitzu hori erabiltzeko eskubideren egiaztagiri bezala.

1.3. JARDUERA BATEAN IZENA EMAN DUTEN ERABILTZAILEAK, EDO KIROL INSTALAZIO BAT ERRESERBATU DUTENAK

1.3.1. Jarduera edo ikastaro baten izena eman edo instalazio bat erreserbatu duten pertsonak dira. Horretarako, unean-unean indarrean dauden ordenantza fiskaletan aurreikusitako tasak ordainduko dituzte.

1.3.2. 8 urtetik beherako ikastarogileak pertsona laguntzaile batekin sartu ahal izango dira aldagelara. Laguntzailea doan sartuko da, baina haurrari arropa janzen eta eranzen laguntzeko behar den denbora baizik ez du emango bertan. Laguntzaile horiek ezingo dira sartu, inolaz ere, kirol esparruetan, eta ezingo dira zain egon instalazioen sarbideetan.

2. BERAK BAKARRIK ALDAGELETAN ETA INSTALAZIOETAN IBILTZEKO ARAZO BEREZIAK DITUEN ERABILTZAILEAREN LAGUNTZAILEA.

- 2.1. Premia berezien ondorioz, aldageletan eta kirol instalazioetan euren kabuz bakarrik ibiltzeko arazoak dituzten erabiltzaileen laguntzaileak izango dira.
- 2.2. Era berean, laguntzailetzat hartuko dira 8 urtetik beherako adingabekoarekin zerbitzuetan eta instalazioetan sartzen diren pertsonak.
- 2.3. Ez dute izango instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeko eskubiderik; izan ere, beraien helburu bakarra da bere kabuz eskubide hori erabiltzeko aukera ez duen pertsonen laguntza eskaintzea.
- 2.4. Laguntzailea doan sartu ahal izango da, baina agiri egokiak eskatu ahal izango zaizkio, erabiltzailearen eta laguntzailearen arteko laguntza-harremana egiaztatzeko.

3. KIROL INSTALAZIOAK DARABILTZATEN ENTITATEAK.

- 3.1. Kirol instalazioetan, era kolektiboan eta antolatuan, ohiko entrenamendu eta lehiaketak egiten dituzten kirol entitateak dira.
- 3.2. Kirol entitate horiek Udalarekin hitzartutako instalazioa erabili ahal izango dute, adostutako egun eta orduetan, baina ez dute izango erabiltzeko bestelako eskubiderik, baimen horietatik aparte.

B. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

1 Erabiltzaileen eskubideak dira:

- 1.1 Erabiltzeko eskubidea.** Erabiltzaile guztiek dute udalak eskainitako zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeko eskubidea, araudi partikular bakoitzaren arabera, baldin eta instalazio edo zerbitzu horiek eskuragarri badaude eta, era berean, pertsona horiek ez badute inolako zigorrik, instalazioetan sartzeko edo horiek erabiltzeko.
- 1.2 Arreta eta trataera egokia jasotzeko eskubidea.** Udal langileek arreta eta trataera egokia izango dute pertsonekin, une oro.
- 1.3 Erreklamatzeko eta iruzkinak egiteko eskubidea.** Erabiltze guztiek dute edozein zalantza, iradokizun edo erreklamazio aurkezteko eskubidea.
- 1.4 Zerbitzuei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.** Erabiltzaileek zerbitzu horien prestazioei eta gerta daitezkeen gorabeherari buruzko informazio osoa jasotzeko eskubidea dute. Informazio horretan sartzen da:
 - a) Eskuragarri dauden zerbitzuen eta jardueren eskaintza.
 - b) Zerbitzuen egutegia, eta ixteko eta irekitzeko ordutegia.
 - c) Indarrean dagoen tasen taula eta, horren barruan, zerbitzuak erabiltzeko baldintzak. Hau da, urte horretako ordenantza fiskalak.
 - d) Ordutegietan, kuota-tasetan eta erabiltzeko baldintzetan aldaketarik izanez gero, horren inguruko iragarkiak.
 - e) Zerbitzuetan gorabeherarik edo etenik egonez gero, horren inguruko iragarkiak.
 - f) Ikastaro eta jarduera puntualetarako deialdiak.

Informazio hori guztia, gutxienez, Agorrosin Ekintza Guneko publikoaren arretarako bulegoan eskainiko da. Gainerako informazio-bide guztiak osagarriak dira eta Udalak ez du horiek erabiltzeko derrigorrik.

1.6. Hizkuntza-eskubidea. Erabiltzaile guztiek dute arreta euskaraz edo gaztelaniaz jasotzeko eskubidea.

2. Erabiltzaileen betebeharrak dira:

2.1. Arauak betetzea. Kirol instalazio eta zerbitzuak erabiltzen dituzten erabiltzaile guztiek errespetatu eta beteko dituzte araudi honetako arauak, bai eta ezarri beharreko gainerako araudiak ere. Erabiltzaileek araudia ez ezagutzeak ez ditu salbuesten arauak bete behar izatetik. Hala, debekatuta dago:

2.1.1. Kirol instalazioetan erretzea, barrukoetan nahiz kanpokoetan.

2.1.2. Instalaziotan jatea edo/eta edatea, horretarako bereziki ezarritako guneetan izan ezik.

2.1.3. Animaliak sartzea. (gida txakurrak izan ezik, indarrean dagoen legeriak zehaztutako baldintzetan).

2.1.4. Publizitatea edo propaganda ezartzea, udalak berariaz baimenduta ez bada.

2.1.5. Kirol instalazioetako edozein gunetan beirazko, kristalezko edo metaleko ontziekin sartzea. Arau horretatik kanpo daude jateko eta edateko guneak; ez ordea, gune horien eranskinak.

2.1.6. Instalazioetara patinak, patineteak, bizikletak edo beste edozein lokomozio-bide sartzea, edo bertan horiekin ibiltzea.

2.1.7. Ekipamendua apurtu, erabiltzaileak zauritu, edo horien lasaitasuna eten dezakeen edozein objektu edo elementu sartzea.

2.1.8. 8 urtetik beherako haurrak bakarrik sartzea; pertsona heldu batek lagunduta egon beharko dute. Laguntzailea une oro egongo da adingabearekin, araudia beteko dela ziurtatzeko. Nolanahi ere, debeku hori ez zaie ezarriko ikastaroetan edo antolatutako jardueretan parte hartzen duten adingabeei. Kasu horretan, araudi honen beste atal batzuetan zehaztutako arau espezifikoak ezarriko dira.

2.2. Identifikatzea nahitaezko da. Erabiltzaile orok udaleko langileen aurrean identifikatu beharko du, horiek hala eskatzen diotenean. Erabiltzaileak identifikatzeari uko eginez gero, udal langileek instalazioetan edo zerbitzuetan sartzea uka diezaiokete, edota bertatik kanporatu.

2.3. Kontratututako zerbitzuak ordaintzeko betebeharra. Erabiltze guztiek ordaindu beharko dituzte zerbitzuen tasak, urte horretako ordenantza fiskaletan jasota dagoen bezala. Tasak ordaintzen ez badira, administrazio eta kobrantza arauetan zehaztutakoa egingo da.

2.4. Instalazioak egoki eta arduraz erabiltzeko betebeharra.

2.4.1. Instalazioak egoki erabiltzeko, ezinbestekoa da kirol jantzi eta oinetako egokiak izatea. Areto edo pista estalietan oinetako bereziak erabili behar dira; hau da, pistetan ez dira inoiz erabiliko kaletik jantzita ekarritako oinetakoak.

2.4.1.1. Erabiltzaileak instalazioen xederako erabili behar ditu instalazio horiek. Beste edozein erabilera egiteko, aurretik udalaren baimena jaso behar da.

2.4.1.2. Arropa-armairuak jarduera egiten den bitartean baizik ezin dira erabili; zentrotik irtetean, hustu egin behar dira. Udalak, egunero, armairu horiek ireki eta garbitu egingo ditu.

2.4.1.3. Instalazioetan dauden eremu eta elementu guztiak erkideak dira. Inork ezin izango ditu erabili berarentzat bakarrik. Ondorioz, araudi honek jasotzen ez dituen egoeretan, erabiltzaileek kasu egin behar diete instalazioko langileen aginduei, eta baliabideak errespetuz eta zentzuz partekatu beharko dituzte.

2.4.1.4. Erabiltzaileek instalazioak txarto erabiliz gero, eragin ditzaketen kalteen erantzule izango dira.

2.5. Zehapen-erregimena betetzeko betebeharra. Betebeharrak betetzean, arduragabekeriak jokatzuz gero, eta instalazioen berariazko araei jaramon egin ezean, udal gobernua erabiltzailea zigortu ahal izango du, hala nola aldi baterako zigortuz edota honako debeku hauek ezarriz:

- Zerbitzuan edo instalazioan sartzeko debekua, egoki ikusten den aldian, arau-haustearen larritasunaren arabera.
- Jarduera/k edo zerbitzua/k.
- Kasu bakoitzean erabakitzen dena.

2.5.1. Arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke, honako irizpide hauen arabera:

2.5.1.1. Arau-hauste arinak dira instalazioaren edo zerbitzuaren funtzionamendua eten edo oztopatzea ez dakartenak.

- 2.5.1.2.** Arau-hauste larriak dira instalazioaren edo zerbitzuaren funtzionamendua galarazten dutenak, baldin eta egunean bertan berrekiteko aukera badute eta beste inor kaltetuta ez badago.
- 2.5.1.3.** Arau-hauste oso larriak dira instalazioaren edo zerbitzuaren funtzionamendua galarazten dutenak, baldin eta egunean bertan berrekiteko aukerarik ez badago edo/eta beste inor kaltetuta suertatu bada.
- 2.5.2.** Arau-haustearen larritasunaren arabera, ekinbide juridiko egokiak ere jar litezke abian. Beraz, araudi honek ez ditu oztopatzen beste prozedura batzuk, indarrean dagoen araudiak jasotzen dituenak.
- 2.5.3.** Diziiplina-prozesuak honako urrats hauek ditu:
- 2.5.3.1.** Udal langileek kautelazko neurriak har ditzakete, eta berehala ezarriko dira.
- 2.5.3.2.** Gertatutako guztiarekin, kirol batzordeak kargu-orri bat egingo du, Udal Gobernuak egotzitako gertakizun guztiak jasota.
- 2.5.3.3.** Udal Gobernuak interesdunari jakinaraziko dio diziiplina-prozesua dagoela abian, eta alegazioak egiteko epe bat emango dio. Beharrezkoa bada, audientzia ere egingo da.
- 2.5.3.4.** Udal Gobernuak espedientea ebatzi eta interesdunari eta kirol zerbitzuari horren berri emango die.
- 2.5.3.5.** Arau-haustek eta bakoitzari dagokion zigorren interpretazio egokia egiteko, Tokiko Gobernuak modernizatzeko neurriei buruzko Abenduaren 16ko 57/2003 Legearen XI. Tituluan ezarritakoa hartuko da kontuan.

C. UDAL INSTALAZIOEN ERABILERA.

1. UDAL KIROL INSTALAZIOETAKO ARAU OROKORRAK.

1.1. Instalazietako egutegi eta ordutegiak.

1.1.1. Kirol instalazioetako ikasturteko egutegi eta ordutegiak Bergarako Udalak ezarriko ditu.

1.1.2. Egutegi eta ordutegiak kirol instalazio bakoitzean egongo dira ikusgai. Agorrosin Ekintza Guneko harreran hauek guztiak kontsultatu ahaliko dira.

1.2. Ikasturteko egutegi eta ordutegietatik at, kirol jarduera edo kirol jarduera ez den ekintzak antolatzeako:

1.2.1. Gutxienez hilabete bateko aurrerapenarekin, Bergarako Udalari baimen idatzia eskatu beharko zaio ekintzaren berri zehatza emanaz. Baimena ematen den kasuetan antolatzaileren esku geratzen dira ekintzaren antolaketatik erator daitezkeen ardura administratibo, tributario, laneko edo bestelako izaerakoak; baita beharrezkoak liratekeen baimen, araudiak betetzea eta antolaketatik erator daitezkeen bestelako gaiak.

1.2.2. Bergarako Udalaren baimena izateak ez du adierazi nahi udalak ekintzaren antolaketatik erator daitezkeen erantzukizun eta kalte ordainen arduradun egiten denik.

1.2.3. Erabilera mota bakoitza indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera ordainduko da.

1.3. Publizitatea ipintzea. Kirol instalazioetan publizitatea ipintzeko Udalaren baimena eduki behar da. Horretarako hilabete lehenago ipini nahi den publizitatearen xehetasun denak aurkeztuz eskaera egin beharko da. Baimenik gabe ezin daiteke publizitaterik ipini.

1.4. Udal kirol zerbitzuko araudi hau betetzen ez bada, edota, erabiltzaileren baten erabilera desegokia dela-eta, udalak eskuduntza osoa izango du batetik kalte-ordainak eskatzeko eta bestetik erabiltzaile zehatzei erabilera ukatzeko.

1.5. Aldagelak.

1.5.1. Kirol instalazioetako aldagelak eta bere takilak, soilik eta bakarrik, dagozkion instalazioak erabiltzeko izango dira.

1.5.2. Aldageletan, eraikineko beste aldageletan bezala, ez da higie pertsonaleko jarduerak egiten utziko: Bizarra egin, depilatu, azkazalak moztu eta abar.

1.6. Araudi honetan jasotzen ez diren salbuespen egoerak udalaren esku geratuko dira.

2. UDAL PILOTALEKUEN ERABILERA ARAUAK.

2.1. Araudi zehatz hau pilotaleku hauetan aplikatzeko egin da:

Fraizkozuri udal pilotalekua.	Basalgoko udal pilotalekua.	Uberako udal pilotalekua.	Osintxuko udal pilotalekua.
Torrekua udal pilotalekua.	Espaloiko udal pilotalekua.	Angiozargo udal pilotalekua.	Elosuko udal pilotalekua.
Boluko udal pilotalekua.	San Prudentzioko udal pilotalekua.		

2.2. Ordu-tegi eta egutegiak.

2.2.1. Pilotalekuetako egutegi eta ordu-tegiak Bergarako Udalak ezarriko ditu Azaroan.

2.2.2. Hauek ezartzeko, eta auzo elkarteetan erabilera duten pilotalekuetarako, elkarte horien iritzia jasoko du udalak.

2.2.3. Abenduan, udal kirol zerbitzuko erabiltzaileentzako alokairu orduak zozketatuko dira.

2.2.4. Egutegi eta ordu-tegiak pilotalekuetako iragartauletan egongo dira ikusgai eta Agorrosin Ekintza Guneko harreran hauek kontsultatzeko aukera egongo da.

2.3. Kirol jarduerak.

2.3.1. Udal pilotalekuetan baimenduta dauden kirol jarduera bakarrak euskal pilotako aldaerak (erremontea ezik) eta eta frontenisa dira.

2.3.2. Udalak, beharrezkoak diren uneetan beste salbuespeneko kirol- eta kultur-jarduerak baimendu ahalko ditu.

3. LABEGARAIETAKO KIROLDEGIA.

3.1. Erabilera anitzeko barruko eta kanpoko kantxak.

3.1.1. Barruko kantxa estalia.

3.1.1.1. Egurrezko lur zorua babesteko, ezingo da kaleko oinetakorik erabili, ez eta zorua babesteko ez duten neurririk gabeko ekintzarik egin.

3.1.1.2. Saskiak eta gortina erdibikariak, soilik eta bakarrik, horretarako baimena duten pertsonak erabiliko dute: UKZko langileak, Labegaraietako tabernariak eta kirol entitateko arduradun batzuk.

3.1.2. Labegaraietako Boulderra.

3.1.2.1. Boulderra ez da rokodromo bat. Horregatik, guztiz debekatuta dago 2 metroko alturatik gora eskalatzea. Baimendutako jarduera bakarria eskalada horizontala da.

3.1.2.2. Eskalada bertikala ez dago baimenduta, Bergarako Udalaren baimena izan ezean.

3.1.2.3. Heldu batek lagunduta egon ezean, 14 urtez beherakoek debekatuta dute boulderra erabiltzea, baita bertako material eta ekipamendu guztiak erabiltzea ere.

3.1.2.4. “Eskalatzeko oinetakoak” janztea derrigorrezkoa da, instalazioa erabili ahal izateko.

3.1.2.5. Eskalatzerakoan oralekuak, eskaladako panelak eta, kasuan kasu, harrizko murrua erabili behar dira. Debekatuta dago beste edozein egiturazko elementu erabiltzea, baita panelen atzealdetik oratzea eta aurrera egiteko pitzadura horiek erabiltzea.

3.1.2.6. Debekatuta dago “boulderra” eskalada horizontalaz bestelako edozein jardueratarako erabiltzea.

3.1.3. Labegaraietako tenis pista.

3.1.3.1. Tenis pista soilik eta bakarrik tenis kirol-jardueretarako (buruz buruko eta binakako aldaerak) erabiliko da. Bestelako kirol- edo kultur-jarduerak udalaren baimena eduki beharko dute.

3.1.3.2. Labegaraietako irristaketa pista.

3.1.3.2.1. Kirol instalazio hau irristaketa kirol jardueretarako eraiki da. Jarduera in-line irristaketa, gorpildun oholetarako eta patineteak izango dira. Bizikletak sartzeko aukera ere aurrikusten da; baina horretarako bizikleta erabiltzaileek gorpildun lokatz edo harririk eramaten ez dutela bermatu beharko dute.

3.1.3.2.2. Instalazio honetan buruko, ukondoko eta belaunekoak erabiltzea nahitaezkoa da.

3.1.3.2.3. Instalazioa bustia dagoenean erabiltzea debekaturik dago.

3.1.3.2.4. Udalak ez ditu bere gain hartuko, ez beharrezko babes neurriak hartzen ez dituzten ez eta bere gaitasun mailetatik haratago joan nahi duten erabiltzaileen istripuetatik eratorritako ardurarik ez eta erantzukizunik.

3.1.3.3. Labegaraietako Ur Bizietako Hiri Zirkuitua.

3.1.3.3.1. Adina.

- 3.1.3.3.1.1. Instalazio hau erabiltzeko nahitaez adinez nagusia izan behar.
- 3.1.3.3.1.2. Adin txikikoek, nahitaez, adinez nagusiko batekin instalazioa erabili ahalko dute.
- 3.1.3.3.2. Materiala.
 - 3.1.3.3.2.1. Udalak ez du jarduera egiteko materialik utziko. Erabiltzaile bakoitza da bere materiala ekarri, zaindu eta piraguismo jardueretarako egokia dela bermatzeko arduradun bakarra.
- 3.1.3.3.3. Arriskua.
 - 3.1.3.3.3.1. Ur bizietako hiri zirkuitua, ur eremu aldakorreko jarduera fisikoa izanik, berarizkoak zaizkion arriskuak ditu.
 - 3.1.3.3.3.2. Erabiltzaile bakoitza izano da bere buruaren erantzule bakarra. Erabiltzaile bakoitzak bere gaitasun eta trebezien arabera erabakiko du instalazioa erabiltzeko gai den edo ez. Horregatik beragatik, udala ez da norberaren gaitasunak gaizki doitu dituen kirolariaren istripuen erantzule egingo.
- 3.1.3.3.4. Ingurumena.
 - 3.1.3.3.4.1. Natura eremuan kokatuta dagoen kirol instalazioa izanik, berebiziko garrantzia du erabiltzaile bakoitzak eremua zaindu eta babestea.

4. AGORROSIN EKINTZA GUNEA.

4.1. UR EREMUA.

- 4.1.1. Ur eremuko araudi atal honek esparru hauek arautzen ditu: Igeri ontzi handia, igeri ontzi txikia, jolas igeri ontzia eta bere berdegunea, bainuetxea (berariazko araudiarekin batera) eta beroien guztien aldagelak eta ontzietarako sarbideak.
- 4.1.2. Araudi honetan jaso ez diren puntuak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Erabilera Kolektiboetarako igerilekuetarako duen araudiarekin osatuko dira.
- 4.1.3. Ur eremuko erabiltzaileen eskubideak.
 - 4.1.3.1. Gehienezko edukieraren berri izatea.
 - 4.1.3.2. Eremu bustiaren ordutegi barruan, etengabeko sorosle eta botikin zerbitzuak izatea.
 - 4.1.3.3. Sorosle zerbitzuarekin batera, premia fisiko eta psikikoko erabiltzaileei laguntza emango zaie eremu bustiko esparrutan sartzeko. Horretarako, eta behin soroslearen laguntzarik gabe, erabiltzaile hauek autonomia osoz jarduteko gaitasuna izan beharko dute.

4.1.4. Ur eremuko erabiltzaileen betebeharrak.

- 4.1.4.1. Soroslearen argibideak jarraitzea. Erabiltzailea ez da igeri ontzietan sartuko soroslea bertan ez dagoen bitartean.
- 4.1.4.2. Erabiltzailea, osasun-neurriak betetzeko edo/eta gehienezko edukiera gainditu delako ez da eremu bustira sartuko hala adierazten badiote igerilekuko langileek.
- 4.1.4.3. Igeriontzi guztietan nahitaezkoa da txapela erabiltzea, jolas igerilekuan izan ezik.

4.1.5. Adina. Igeriontzi guztietan **gutxieneko adina 8 urte da**, beti ere, erabiltzailea ur eremu horretan erabateko autonomiaz aritzeko gai bada. Hortik beherako adineko erabiltzaileak igeri ontzietan aritu nahi balu adin nagusiko baten laguntzaz eta ardurapean egin beharko luke.

4.1.6. Jantzkerak.

- 4.1.6.1. Nahitaezkoa da, bainu jantzia erabiltzea. Top-less edo monobikinia baimenduta dago.
- 4.1.6.2. Eremu bustiko eremuan, oin-hutsik ibili daitekeen arren, oinetako bereziak erabiltzea gomendatzen da. Oinetako berezi bezala ez dira “latexeko galtzerdiak” onartuko; osasun-premia berezietan salbu.
- 4.1.6.3. Igerilekuetarako diren betaurrekoak baino ez dira onartuko, kristalezko betaurrekoak debekatuak daude. Debekaturik dago kaleko zapata zein arroparekin eremu bustian sartzea.

4.1.7. 15 segundo irauten duen dutxa hartzea nahitaezkoa da edozein igeri ontzietan sartu baino lehen.

4.1.8. Debekaturik dago uretan behar fisiologikoak zein bestelako ekintza antihigienikorik egitea (txua bota, mukiak kendu,...). Nahitaezkoa dute beren premia fisiologikoak kontrolatzeko gai ez diren erabiltzaileek pixoihala erabiltzea.

4.1.9. Debekaturik dauden ekintzak dira:

- 4.1.9.1. Nasetan korrika egitea, jolasten ibiltzea, jendea uretara botatzea, elkarri bultzatzea eta gainontzeko erabiltzaileei traba eta kalte egin diezaioketen edozein ekintza.
- 4.1.9.2. Uretara edozein lekutik jauzi egitea. Jarduera alde aurretik baimendua ez badago edo/eta jauzia ikastaroetako begirale batek baimendua ez bada.
- 4.1.9.3. Debekaturik dago, olgetarako puzgarriak, baloiak, hegatsak, piraguak, urpekaritza betaurrekoak, eta abar erabiltzea. Igerilekuan erabili daitekeen materiala

soroslearen oniritzia izan behar du beti. Sorosleak materiala kendu, gorde eta erabiltzailea etxeratzen denean itzul dezake egoerak hala eskatuko balu.

4.1.9.4. Salbuespenak dira:

4.1.9.4.1. Udal Kirol Zerbitzuak baimendu ditzakeen salbuespeneko erabiltzaile eta jarduerak.

4.1.9.4.2. Sorosleak, eta kasuan kasuko, igeriketa jarraian dabiltzan erabiltzaile helduentzako, sorosleak taula, pull-boyak eta igeriketako palak utzi ahalko ditu.

4.1.10. **Soroslea.**

4.1.10.1. Erabiltzaileenganako segurtasun neurriak hartzea, arrisku egoeren aurrean zaintza neurriak hartzea eta istripuen aurrean lehen sorospenak ematea da soroslearen egitekoa. Horretarako, eremu bustian zehar soroslea izango da arauak ezagutarazi eta errespetaraziko dituen lehen pertsona.

4.1.10.2. Erabiltzaile guztiek, nahitaez, soroslearen argibideak jarraitu behar dituzte. Erabiltzaile batek argibide hauek jarraitzen ez dituzenean, soroslea derrigortuta egongo da UKZari egoeraren berri ematea. Bien bitartean, eta bestelako neurriak hartu bitartean, arau hauslearen erabilera okerrak sor ditzakeen kalte ordainak erabiltzaile beraren ardurapean geratuko dira. Halakotan sorosleari ezin izango zaio konturik eskatu ez utzikeriagatik ezta arduragabekeriarengatik ere.

4.1.10.3. Sorosleak, osasun eta segurtasun baldintzak bermatu asmoz eta erabileraren hobe beharrerako, eskumen osoa du arau hauetatik kanpo dauden bestelako behin behineko neurriak hartzeko. Ondoren, ez ohiko neurri hartze eta egoerak UKZari jakin araziko dizkio.

4.1.10.4. Sorosleak, eta araudia bete ahal izateko, hainbat erabiltzailearen aurrean neurri kautelarrak hartu ahalko ditu.

4.1.11. Ontzi eta ur-eremuko aforoak.

4.1.11.1. Ontzi bakoitzeko aforo maximoak.

4.1.11.1.1. Igeriketa ontzia (1 px/ 3m²) = 175 px.

4.1.11.1.2. Irakaskuntza ontzia (1 px/ 3m²) = 31 px.

4.1.11.1.3. Jolas igeriontzia (1 px / 2 m²) = 187 px.

4.1.11.2. Ur eremuko instalazio aforo maximoak.

4.1.11.2.1. Udan, ur eremuko instalazioaren aforo maximoa 1182 erabiltzaile da. Hauen kalkuluetarako ez da aintzat hartzen berdeguneko kanpo m²ak.

4.1.11.2.2. Neguan, ur eremuko instalazioaren aforo maximoa 750 erabiltzaile da.

4.2. **IGERIKETA ONTZIKO BERARIAZKO ERABILERA ARAUAK.**

4.2.1. Igeri ontzi handia **jarraian igeri egiteko ontzia da**. Hala ere, noiz edo noiz, eta kirol zerbitzuaren beharren arabera, bestelako ekintzak egin ahalko dira.

4.2.2. Kaleetan igeri egiteko **ezinbestekoa da luze bat gelditu gabe egiteko gaitasuna izatea**. Horregatik, eta bestelakorik adierazten ez denean, debekaturik dago kale erdian gelditzea. Baldintza hau betetzeko gai ez den erabiltzaileak ezin izango du igeriketarako ontzia erabili.

4.2.3. Igeriketa zirkulazio arauak.

4.2.3.1. **Igeriketa Norazkoak**. Kale batean erabiltzaile bat baino gehiago dagoenean eskuinetik joanez eta ezkerretik etorritz egingo da igeri.

4.2.3.2. Igerilari batek beste bati **aurre hartuko** dio, soilik eta bakarrik, aurre hartzen duenak beste hirugarrengoa bati kalte egiten ez badio. Aurre hartzen duenak baldintza betetzeko gai ez bada paretaraino atzetik joanez itxoin beharko du aurreratzeke.

4.2.3.3. Kale motak:

4.2.3.3.1. Urdinez, **Igeriketa motela**. Erabiltzaile bakoitzaren gaitasunen arabera kalea da, bertan, ustez motel igeri egiten dutenak eta materialik erabiliko ez duten igerilariak sartuko dira.

4.2.3.3.2. Horia, **Igeriketa azkarra**. Erabiltzaile bakoitzaren gaitasunaren arabera kalea da, bertan, ustez azkar igeri egiten dutenak sartuko dira. Igeriketa azkarreko kaleetan pala eta hegatsen erabilera baimentzen da.

4.2.3.3.3. Gorria, **ikastaro zein entrenamendurako kalea da**. Kale hauek behin behinekoak dira. Ordutegi eta erabiltzaile mugatuak dituzte.

4.2.3.3.4. Berdea, **bainu librea edo olgetarako kalea da**.

4.2.3.4. Kale Gorriak eta Berdeak behin behineko kaleak dira. Premia eta egoeraren arabera, Kale hau luze bat jarraian egin ezin dutenentzat, olgetarako eta oinez ibili nahi dutenentzat da.

4.2.3.5. Sorosleak, erabiltzaile bakoitzaren ezaugarrien arabera eta igerilekuaren eta bere erabiltzaileen hobe beharren arabera, erabiltzaileak kalez aldatu ahalko ditu.

4.3. **IRAKASKUNTZA ONTZIKO BERARIAZKO ERABILERA ARAUAK.**

4.3.1. Igeri ontzi txikia igeriketaren hastapenerako, ur gimnastika jardueretarako eta igeriketa terapeutikorako erabiliko da. Hala ere, noiz edo noiz, eta kirol zerbitzuaren beharren arabera, bestelako ekintzetarako baimena emango da.

4.3.2. Ekintza antolatuak ez daudenean erabilera libreko aukera egongo da. Berriz, ekintzaren bat balego, igeri ontzia partekatuko da.

4.4. **JOLAS ONTZIKO BERARIAZKO ERABILERA ARAUAK.**

4.4.1. Jolas igerilekuko nasetan ezingo da etzan ez toalla ez eta hamakekin.

4.4.2. Ezin da inongo eremutik inolaz ere jauzi egin soroslearen baimenik gabe.

4.4.3. Ezingo da horma erdibikarien gainetik pasa ez eta hauen gainetik ibili.

4.4.4. Erabiltzaileentzako segurtasun baldintzak bermatzeko sorosleak atrakzioak piztu-itzali eta ireki-itxi ahalko ditu.

4.4.5. Eremuz eremuko arauak:

4.4.5.1. Txirrista eremua.

4.4.5.1.1. Banaka bota behar da txirristatik behera. Horretarako, erabiltzaileak, urte horretan 8 urte bete eta gutxieneko 1,10 m luze izan beharko ditu. Baldintza hauek betetzen ez dituzten erabiltzaileek, baldintzak betetzen dituen bigarren erabiltzaile batekin, eta batera, bota ahalko dira.

4.4.5.1.2. Atrakzioan sartzeko eta bertatik botatzeko bi semaforoz osatutako kontrol sistema bete behar da.

- Kolore BERDEAK “igotzeko baimena” eta “botatzeko baimena” adierazten du.
- GORRIAK “itxoin” adierazten du. GORRIA itxoiterakoan ilara sortzen bada hau errespetatu beharko da.

4.4.5.1.3. Gorputz posizioari buruz: Baimenduak daude:

4.4.5.1.3.1. Etzanda, ahoz gora eta burua atzean.

4.4.5.1.3.2. Etzanda, ahoz behera eta burua aurrean.

4.4.5.1.3.3. Eserita eta aurrera begira.

4.4.5.1.4. Debekaturik daude:

4.4.5.1.4.1. Etzanda, ahoz gora eta burua aurrean.

4.4.5.1.4.2. Etzanda, atzerantz begira.

4.4.5.1.4.3. Edozein modutan zutik.

4.4.5.1.4.4. Edozein modutan belauniko.

- 4.4.5.1.5. Uretara jauzi bezain azkar ezkerretik irten beharko da harrera gunean ahalik eta azkarren libratuz.
- 4.4.5.1.6. Araudi honetan zehazten ez diren gainontzeko arauak beste arau honetan zedarrizten dira UNE EN 1069-1:1999.
- 4.4.5.2. Ur biziko kanala eta perretxikoa.
 - 4.4.5.2.1. Ezingo da jende asko dagoenean eta sorosleak adierazten duenean korrontearen aurka egin.
 - 4.4.5.3. Sakonera gutxiko eremua.
 - 4.4.5.3.1. Eremu hau 8 urtetik beherako haurrentzako eremua da.
 - 4.4.5.3.2. Haur hauek, uneoro, adinez nagusiko pertsona batekin egongo dira bere zaintzapean.
 - 4.4.5.3.3. Txirrista txikitik botatzeko adin nagusiko pertsonaren zaintzapean egingo da.

4.5. **BERDEGUNEA.**

- 4.5.1. **Belardiak.** Udaldian erabiltzeko instalazioa da. Horren helburua erabiltzaileen aisialdirako gune bat eskaintzea da. Horregatik:
- 4.5.2. Debekatuta daude baloiak, pilotak, disko hegalaria, kometak eta/edo Udalaren baimenik ez duten gainerako jolastailu mugikorak.
- 4.5.3. Irrati- eta musika-aparatuen bolumenak inoiz ere ez du enbarazurik egin behar, eta Agorrosineko pertsonalak eskatuz gero apartu horiek itzali egin behar dira.
- 4.5.4. Belarra kaltetu dezaketen jarduerak ez dira baimenduko.
- 4.5.5. Baimenduta dago berdegunean elikagaiak hartzea, betiere, horiek prestatzeko gune bereziak behar ez badira.
- 4.5.6. Erabiltzaileek baimena dute beren hamakak, etzaulkiak eta eguzkitakoak erabiltzeko. Horiek ekartzea eta eramatea bakoitzaren erantzukizuna da, izan ere, debekatu dago horiek Agorrosineko eremuan gordetzea.
- 4.5.7. Erabiltzaileek debekatuta dute norbere udako aulki eta mahaiekin sartzea.
- 4.5.8. **Taberna-jatetxea.**
 - 4.5.8.1. Debekatuta dago tabernan kamisetarik gabe sartzea.
 - 4.5.8.2. Erabiltzaileak ezingo dira sartu kaleko jendearentzako gune komunetara, eta alderantziz. Hau da, seinaleak eta gune-zatiketa errespetatu egin beharko dituzte.

- 4.5.8.3. Tabernatik ezin dira atera ez kristalezko edalontziak, ez zeramikazko katiluak, ezta beirazko, kristalezko eta zeramikazko beste edozein elementu ere. Horretarako, derrigorrezkoa da kartoizko eta plastikozko edalontziak erabiltzea.
- 4.5.8.4. Beren jakiak eramaten dituzten pertsonak debekatuta dute taberna-jatetxeko terrazan jatea.

4.5.9. **Igarolekuak eta guneak.**

- 4.5.9.1. Igerilekuko nasetan ezin da ibili oinetakoekin. Guneetara joateko hormigoizko korridore perimetrala dago, eta bertan oinetakoak eraibil daitezke.
- 4.5.9.2. Debekatuta dago hesi perimetralaren gainetik salto egitea eta ateetatik igerilekura sartzea. Beti, oinak garbitzeko putzuko igarobidea erabili behar da.
- 4.5.9.3. Igerilekura sartzeko derrigorrezkoa da oinak garbitzeko putzutik pasatzea, eta erabiltzaileen erantzukizuna izango da oin-zolak egoki garbitzea, instalazioetan higiene egokia bermatzeko xedez.
- 4.5.9.4. Kanpoko komunak ez dira aldagelak. Hortaz, ez da onartuko beste erabilera batzuetarako erabiltzea.

4.6. **BAINUETXE EREMUA.**

- 4.6.1. Bainuetxea lasaitasun eta atsedenerako eremua da.
- 4.6.2. Erabiltzaileak.
 - 4.6.2.1. Instalazio honetako ekipamenduak era aske eta indibidualean erabiltzeko eginak daude, beraz, udalak ez du bere gain hartzen ezarritako gomendioetatik harago erabiltzaileek egin ditzaketen erabilera okerretatik sor daitezkeen kalteak. Horregatik instalazio hauek ezingo dute erabili:
 - 4.6.2.1.1. Edari alkoholodunak edan osteko erabiltzaileak.
 - 4.6.2.1.2. Ariketa bizia egin eta berehalako erabiltzaileak.
 - 4.6.2.1.3. Liseriketa 2 ordu pasatzen utzi ez duten erabiltzaileak.
 - 4.6.2.1.4. Haurdun dauden emakumeak.
 - 4.6.2.1.5. 18 urtez beherako erabiltzaileak.
 - 4.6.2.1.6. Tenperatura aldaketa nabarmen aurrean gaitz edo ondoeza sentituko duten ustea duten erabiltzaileak. Botika bat hartzen darabilten edo/eta nolabaiteko gaitz edo ezintasun medikoa duten erabiltzaileak.
 - 4.6.2.1.7. **Saunak.** Nahitaezkoa da:

- 4.6.2.1.7.1. **Sauna Lehor eta Hotzean** toalla ekarri eta erabiltzea.
- 4.6.2.1.7.2. Sauna bakoitzerako idatziz ezarritako irizpide guztiak betetzea, batez ere, esposizio denborei dagokionean.
- 4.6.2.1.7.3. Ekipamendu hauek erabili baino lehen eta ondoren dutxa hartzea eta baita erabilera osteko atseden denborak errespetatzea.

4.6.2.1.7.4. **Ur ontzi terapeutikoak.**

- 4.6.2.1.7.4.1. Nahitaezkoa da igerileku arruntetako araudi berbera betetzea, bereziki, aurretiko dutxari dagokionean.
- 4.6.2.1.7.4.2. Debekatua dago ur eremuko aire jaurtiketa zuloak estaltzea.

4.7. **AGORROSIN FITNESS ARETOA.**

- 4.7.1. Aretora ezin da sartu ez poltsekin, ez motxilekin, ezta kaleko jantziekin ere. Derrigorrezkoa da kirol-jantziak erabiltzea.
- 4.7.2. 14 urtez beherakoak ezingo dira muskulazio-aretoan sartu, ezta heldu batek lagunduta ere.
- 4.7.3. Erabiltzaile guztiek izerdia kentzeko beren eskuoihala eramango dute. Gainera, ariketak amaitutakoan, jarlekuak, makinak eta zorua garbitzeko paperezko eskuoihalak eta lanbasak erabili beharko dituzte.
- 4.7.4. Entrenamendu kardiobaskularreko makinak saturatuta badaude, udalak finkaturikoa izango da gehinezko erabilera-denbora.
- 4.7.5. Lan-kargen atsedenaldiak makinetatik kanpo egingo dira.
- 4.7.6. Derrigorrezkoa da ariketa amaitutakoan erabilitako materiala ordenatuta uztea.
- 4.7.7. Derrigorrezkoa da denbora guztian jantzita egotea, hau da, ezin da kamiseta erantzi.
- 4.7.8. Baimenik gabe ezin da materialik atera aretotik.
- 4.7.9. Monitoreak:
 - 4.7.9.1. Udalak finkaturiko ordutegian eta egutegian, kirol-jardueretan eta gorputz-ariaketetan aholkatzeko eta laguntzeko zerbitzua eskainiko da.
 - 4.7.9.2. Zerbitzu horren helburua pertsona bakoitzarentzako jarraibide eta entrenamendu egokiak ezagutzera ematea da. Jarraibide horiek inoiz ere ez dira egongo errendimendua handiak lortzera zuzenduta, ezta gorputz-estetikako helburuak betetzera ere. Proposatuko diren programa guztiek gorputz-hezkuntza izango dute helburu. Helburu hori lortzeko, udalak, pertsona horren bitartez, banakako programak jasotzen dituzten txartelak egingo ditu.

- 4.7.9.3. Erabiltzaile bakoitza bere txartelaz arduratuko da.
- 4.7.9.4. Txartel horiek monitoreara dagoen orduegian SOILIK egongo dira eskuragarri.
- 4.7.9.5. Erabiltzaileak nahi izanez gero txartela eraman dezake.
- 4.7.9.6. Programa horiek egiteko, galdera-sorta bati erantzungo zaio. Halaber, horrek inola ere ez du mediku-azterketa ordezkatu. Proposatzen diren ariketak orientaziotzat baino ez dira hartuko. Norbera da bere ekintzen benetako arduradun bakarra.

4.8. AGORROSINGO IKUSENTZUN, 1-2 eta 3-4 ARETOEN ERABILERA ARAUAK.

- 4.8.1. Kirol instalazioen erabilera arau orokorretan zehaztutakoaren arabera arautuko da erabilera.

D. UDAL KIROL ZERBITZUAK.

Udal kirol zerbitzuak dira, udalak zuzenean eskaintzen eta kudeatzen dituen kirol eskaintzako jarduera eta baliabide sorta.

1 ABONUAK.

1.1 Definizioa. Bergarako Udal Kirol Abonua (hemendik aurrera abonua) dira Bergarako Udalaren hautazko zerbitzuak. Abonua dira, indarrean dagoen ordenantza fiskalaren arabera, kirol instalazioetarako sarbideak, erabilerak eta hainbat kirol jardueretarako aukerak ematen dituen zerbitzu sorta.

1.2 Izena ematea.

1.2.1 Abonua izateko, abonua izen-emate fitxa osorik bete behar da, eta sinatuta eraman Agorrosingo idazkaritzara.

1.2.2 Adingabekoen edo egoera berezia medio beste pertsona baten tutoretzapean daudenen kasuan, titularraren ordezkari den pertsonak sinatu eta eraman behar du. Horretarako, izena emateko fitxan dagokion eremua bete behar du.

1.2.3 Fitxa betetzen duen pertsonak inskripzio-datuen aldaketan berri eman behar du ezinbestean.

1.2.4 Instalazioetarako sarbidea modu egokian kontrolatzeko, abonua nahitaez erabili behar du Udalak proposatutako sarbide-kontrolerako sistemak.

1.2.5 Abonua izateko izena ematen duenak araudi hau onartzen du.

1.3 Kobratzeko sistema eta abonua baja eskatzeko modua indarrean diren ordenantza fiskalaren arabera egingo da.

2 IKASTAROAK.

2.1 DEFINIZIOAK.

2.1.1 UDALAK JARDUERAK ETA IKASTAROAK eskaintzen ditu bere zerbitzuen barruan.

2.1.1.1 JARDUERA: Erabiltzaileari aurrez finkatutako epeetan eskaintzen zaizkion ariketa fisiko jakin batzuk dira, kirol-monitorearen esanetara egiten direnak. Jardueron

helburu nagusia ariketa fisikoa sustatzea da. Jarduera guztietan matrikula ordaindu behar da.

- 2.1.1.2 IKASTAROA: irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduera da. Erabiltzaileari eskaintzen zaiona jarduera jakin batean trebatzeko jarduera da. Prozesu honek finkatutako epe mugatu bat du. Ikastaro guztietan ez da matrikula ordaindu behar.
- 2.1.1.3 Eskainitako plazak baino eskari gehiago badago zozketa egingo da.
- 2.1.1.4 Jardueretan eta ikastaroetan izena emateak, berez, ez dakar istripu-asegururik edo kirol-lesioen ingurukorik.

2.2 ZOZKETA eta PLAZA HARTZEKO PROZEDURA.

2.2.1 IZENA EMATEA.

- 2.2.1.1 Jardueretan eta ikastaroetan izena emateko zozketa egingo da. Horretarako, Udalaren jardueretan parte hartu nahi dutenek zozketan izena eman beharko dute.
- 2.2.1.2 Pertsona bakoitzak orri bakarra bete ahal izango du bere izena/abizena jarritz:
- 2.2.1.3 Pertsona bat ardura daiteke beste batek betetako eta sinatutako izena emateko (18 urtetik beherakoek kontu korrontearen titularraren sinadura beharko dute).
- 2.2.1.4 Zozketa motaren arabera, izena emateko orrian aukera bat edo batzuk egongo dira.
- 2.2.1.5 Zozketan, izena eman duen pertsona bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- 2.2.1.6 Zozketan izena emateko epea finkoa izango da.

2.2.2 ZOZKETA BAINO LEHEN.

- 2.2.2.1 Zozketa baino lehen behin behineko zerrendak argitaratuko dira.
- 2.2.2.2 Zerrenda horietan akatsen bat balego 24 orduko epea egongo da zuzenketak egiteko.
- 2.2.2.3 Erreklamaziorik ezean akatsik ez dagoela ulertuko da eta izena ematea behin betikotzat joko da. Beraz, ez da inongo aldaketarik onartuko.

2.2.3 JARDUEREN ETA IKASTAROEN ZOZKETA.

- 2.2.3.1 Zozketako eguna eta ordua finkatuko dira.
- 2.2.3.2 Jardueretan eta ikastaroetan parte hartzeko lehentasuna izango dute udal abonatuak.
- 2.2.3.3 Izena eman duten guztien zerrenda egingo da. Zenbaki bat aukeratuko da ausaz, zenbaki horretatik aurrera hartuko dira eskariak.

2.2.4 PLAZAK EMATEA.

- 2.2.4.1.1 Eskatutako aukeran plazarik badago, izena ematea automatikoki gauzatuko da.

- 2.2.4.2 Inongo plazarik egokitu ez zaion pertsona automatikoki itxaronzerrendan jarriko da.
- 2.2.4.3 Udalak ez die inongo oharrik helaraziko jardueran plaza lortu dutenei, ez eta itxaronzerrendatik edo zozketatik kanpo gelditu direnei ere. Pertsona bakoitzaren ardura da bere egoeraren berri izatea.
- 2.2.4.4 Txanda berean bi aldiz edo gehiagotan izena ematen dutenak zozketatik kanpo geldituko dira. Libre gelditzen diren plazetan izena emateko aukera izango dute.
- 2.2.4.5 Jarduera bakoitzean gehienezko eta gutxienezko partaide kopurua finkatuko du udalak.

2.2.5 IKASTAROAREN/JARDUERAREN HASIERA.

Ikastaroa/jarduera hasiko dutenak, zozketari dagozkion datan eta orduan bertaratu beharko dira. Edozein aldaketa egin nahi izanez gero, aldaketa-eskaria idatzi beharko da eta udalaren baimena lortu. Jardueretako partaideek Erantzukizun Zibileko aseguruia izango dute.

2.2.6 ITXARONZERRENDAK.

- 2.2.6.1 Plazak libre gelditzen diren heinean telefono bidez jakinaraziko zaie itxaronzerrendan daudenei. 24 orduko epean erantzunik ematen ez duenak txanda galduko du eta zerrendako hurrengoari eskainiko zaio plaza hori.
- 2.2.6.2 Itxaronzerrendan egonik eskaintzen zaion plaza atzera botatzen duena zerrenda horretatik kanpo geldituko da.

2.2.6.3 PLAZA LIBREAK.

- 2.2.6.3.1 Libre gelditzen diren plazak iritsiera-ordenean eskainiko dira, udalak finkatutako datatik aurrera.
- 2.2.6.3.2 Plaza librean izena eman ahal izateko, ikastaroaren/jardueraren izena emateko orria bete beharko da.
- 2.2.6.3.3 Plaza hartzean, jarduera hasita badago ere, ikastaroaren zenbateko osoa ordaindu beharko da.
- 2.2.6.3.4 Pertsona bakarrak gehienez 3 erabiltzailereren izenak eman ahal izango ditu.

2.2.7 KOB RATZEKO ERA ETA JARDUERETAN ETA IKASTAROETAN BAJA EMATEKO ESKABIDEA.

- 2.2.7.1 Indarrean diren ordenantza fiskalen arabera egingo da: helbideratutako ordainketa edo bankuko abonua-agiria.

2.2.8 IKASTAROEN/JARDUEREN ZERBITZUA ETETEN DENEAN.

2.2.8.1 Ikastaroen eta jardueren zerbitzua ezustean eteten bada, Udalak konponbidea proposatuko du.

2.2.8.2 Udalak lehenbailehen azaldu beharko ditu zerbitzua eteteko arrazoiak

3 PISTA, FRONTOI ETA KANTXA ALOKAIRU ETA ERRESERBAK

Indarrean dauden udal ordenantzetan alokatzen eta erreserbatzen diren pistak, frontoiak eta kantxak zehaztuko dira. Ordenantzetan alokairu eta erreserba tasak eta ordainketa moduak zehaztuko dira.

3.1 ERABILTZAILE PARTIKULARREK EGITEN DITUZTEN KIROL INSTALAZIOEN ERRESERBARAKO PROZEDURA ARAUAK.

3.1.1 Erreserba udalak instalazio bakoitzerako mugatzen duen denbora bitarterako egingo da.

3.1.2 Erreserbak adjudikatzeko zozketa egingo da.

3.1.2.1 Erreserbetarako izen-ematea zozketa bidez egingo da. Horretarako, Udaleko instalazio baten erreserbetan parte hartu nahi dutenek zozketan eman behar dute izena.

3.1.2.2 Pertsona bakoitzak orri bakarria bete ahal izango du, izen-abizenarekin.

3.1.2.3 Pertsona bat ardura daiteke beste baten izena emateko bete eta sinatu behare diren orriez (18 urte baino gutxiago baditu, kontu korrontearen titularraen sinadura beharko du).

3.1.2.4 Izen-emate bakoitzeko bi erreserba-eskaera egin ahal izango dira.

3.1.2.5 Izena bitan edo gehiagotan ematen duena zozketatik kanpo geratuko da.

3.1.2.6 Izena eman duen bakoitzari zenbaki bat dagokio zozketan.

3.1.2.7 Zozketarako izena emateko epe bat izango da.

3.1.2.8 ZOZKETAREN AURRETIK.

3.1.2.8.1 Zozketaren aurretik behin-behineko zerrendak argitaratuko dira.

3.1.2.8.2 Zerrendetan akatsik balego, 24 ordu izango dira zuzentzeko.

3.1.2.8.3 Erreklamaziorik ezean, zerrendetan ez dagoela akatsik ulertuko da eta behin-betikotzat joko dira. Beraz, aurrerantzean ezin izango da inolako aldaketarik egin.

3.1.2.9 ERRESERBEN ZOZKETA.

3.1.2.9.1 Zozketarako eguna eta ordua ezarriko da.

3.1.2.9.2 Adjudikazioan, lehentasuna izango dute udaleko abonatuak.

3.1.2.9.3 Izen-emate guztiekin zerrenda bat egingo da. Zenbaki bat aukeratuko da ausaz eta, zenbaki horretatik abiatuta, eskaerei erantzungo zaie.

3.1.2.10 PLAZA ADJUDIKATZEA.

3.1.2.10.1 Lehen aukerarako plazarik bada, izen-emateak automatikoki egingo dira.

3.1.2.10.2 Lehen aukerarako plazarik ez bada, eta bigarren aukerarako plazarik bada, izen-ematea automatikoki egingo da. Gainera, ez da itxaronzerrendan egoteko eskubiderik izango.

3.1.2.10.3 Inolako aukerarik tokatu ez zaion pertsona, automatikoki itxaronzerrendan jarriko da bere lehen aukerarako.

3.1.2.10.4 Udalak ez die abisurik helaraziko jardueran plaza bat lortu duten pertsonari. Ezta itxaronzerrendatik edo zozketatik kanpo geratu direnei ere. Bakoitza arduratu beharko da bere egoera espezifikoa zein den jakiteaz.

3.1.2.10.5 Izena birritan edo gehiagotan ematen dutenak zozketatik kanpo geratuko dira. Libre geratzen diren plazetan eman ahal izango dute izena.

3.1.2.11 ERRESERBA ERABILTZEN HASTEAN. Erreserba egin dutenek zozketaren emaitza ikustera joan beharko dute dagozkien egun eta orduetan. Aldaketaren bat egin nahi badute, idatziz egin beharko dute aldatzeko eskaera eta Udalaren oneritziari itxaron.

3.1.2.12 ITXARONZERRENDAK.

3.1.2.12.1 Itxaronzerrendan dauden pertsonari telefonoz deituko zaie, erreserbak baja ematen diren neurrian. 48 ordutan erantzun ezean, txanda galduko dute, eta zerrendako hurrengoari deituko zaio plaza bera eskaintzeko.

3.1.2.12.2 Eskainitako erreserbari uko egiten dioten itxaronzerrendako pertsonak itxaronzerrendatik kanpo geratuko dira.

3.1.2.12.3 Itxaronzerrendako pertsonak lehentasuna izango dute beste batzuen aldean, plaza adjudikatzeko orduan.

3.1.2.13 ERRESERBA LIBREAK.

3.1.2.13.1 Libre geratzen diren erreserbak heldze-ordena zorrotz zainduta adjutikatuko dira, udalak ezartzen duen egunetik aurrera.

3.1.2.13.2 Izena bitan edo gehiagotan eman dutelako zozketatik kanpo geratu direnak, plaza libretan edo itxaronzerrendetan inskribatu ahal izango dira.

3.1.2.14 KOBRAZKEKO MODUA ETA JARDUERETAN ETA IKASTAROETAN BAJA EMATEKO ESKAERA.

3.1.2.14.1 Indarrean dauden ordenantza fiskaletan ezarritako eran egingo da.

3.1.2.15 ERRESERBA ZERBITZUA ETEN EGITEN DEN KASUAN.

3.1.2.15.1 Ezusteko arrazoiengatik erretserba zerbitzua eten egiten bada, udalak, horien ordezt, beste aukera batzuk eskainiko ditu.

3.1.2.15.2 Udalak ahalik eta lasterren eman beharko du zerbitzua eteteko arrazoi berri.

3.2 **ERAKUNDEEK KIROL INSTALAZIOAK ERRESERBATZEKO PROZEDURA ARAUAK.**

3.2.1.1 Kontuan hartua eskaria handia dela eta guztiei erantzuterik ez dagoela, orduak eta instalazioak emateko, Udalaren zuzendaritzaren agindua beteko da.

3.2.1.2 Erreserbatutako instalazioen bat hilean gutxienez 3 egunetan erabiltzen ez bada (ondo ondokoak izan edo ez) eta ez bada justifikatzen, lagapena bertan behera gera daiteke.

3.2.1.3 Beharren arabera programazioa aldatzeko eskubidea gordetzen du Udalak.

3.2.1.4 Entrenatzailea edo delegatu lanak egiten dituen arduratuko da materialaren eta ekipamenduen erabiliera onaz, baita, jarduera bukatutakoan, kirolguneak eta aldagelak berriro erabiltzeko moduan uzteaz ere.

3.2.1.5 Udalak beharrezko agiriak aurkeztea eskatuko du, segurtasuna bermatzeko eta araudiek diotena betetzeko. Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez duten erakundeek ezingo dituzte beren jarduerak egin kirol-instalazioetan.

3.2.1.6 **ESKABIDE MOTAK.**

3.2.1.6.1 Denboraldi bateko entrenamenduak, saioak edo eskolak.

3.2.1.6.1.1 Udal-instalazioak eta lankidetzak-hitzarmenean sartzen direnak erabiltzeko eskabideak idatziz egin behar dira, udalak horretarako dituen inprimakien bidez, eta bi kopia entregatu beharko dira.

- 3.2.1.6.1.2 Eskabideak ekainaren 15etik uztailaren 15era bitartean entregatuko dira. Abuztuaren 31tik aurrera instalazioen erabilera-taula argitaratuko da, bakoitzak erabili beharreko (edo ez) egunen, orduen eta instalazioen berri emateko.
- 3.2.1.6.1.3 Gerora jasotako eskari guztiak libre dauden erabilera guneetara egokitu beharko dira.
- 3.2.1.6.2 Kirol-lehiaketa ohikoak eta erregularrak.
- 3.2.1.6.2.1 Udaleko instalazioetan edo hitzartutakoetan txapelketa-partidak jokatzeko baimena eskatzen duen taldeak lehiaketa-egutegiaren kopia aurkeztu beharko du nahitaez.
- 3.2.1.6.2.2 Modalitate bereko talde bi edo gehiago egun berean (behin edo behin baino gehiagotan) jokatu behar badute, Udalaren zuzendaritzak ezartzen duena bete beharko dute, lehiaketa-partidetarako ordutegiei dagokienez.
- 3.2.1.6.2.3 Arrazoiak arrazoi, erakunde batek bere partiden ordutegia aldatzea erabakitzen badu, Udaleko bulegoan kontsultatu beharko du, eta, aldatzerik badago, idatziz jakinarazi beharko du partida egunaren aurreko asteazkena baino lehen. Telefonoz edo Udalari zuzendutako idatziz ez den beste modu batez egiten diren jakinarazpenak ez dira onartuko aldaketak eskatzeko.
- 3.2.1.6.2.4 Araudi honetan ezarritakoa gorabehera, kirol-instalazioetan txapelketak, ikuskizunak, kirol-ekintzak edo bestelako ekintzak egin nahi badira, talde edo erakunde antolatzaileek legeria orkorra edo sektoriala bete beharko dute, ekintza horien burutzapena arautzen duen aldetik.